

Iberdrolak industri talde baten egitura hartu du, «era independentean» hazteko

Konpainiak gas, ur eta telekomunikazio merkatuetara zabaltzeko asmoa du

Joseba Aiertza / Bilbo

Konpainia eredu berri baten arabera antolatzea erabaki du Iberdrolako Administrazio Kontseiluak, industri talde baten egitura hartzeko. Argindar konpainiak era «autonomo eta independentean» hazteko asmoa iragarri du, energia sektorean «berezko identitatea» edukitzeko. Alorreko beste konpainiekin bat egiteko asmorik ez duela ondo-rioztatzen da egitasmo horretatik.

IBERDROLAREN hazkunde estrategiak, ohiko argindar merkatuaz gainera, nazioarteko merkatuetara zabaltzea aurreikusten du, baita gas, telekomunikazio eta ur negozioetan sartzea ere. Enpresa 2000. urtetik aurrera «zerbitzu operadore orokorra» bilakatzeko asmoa agertu du Administrazio Kontseiluak.

Hazkunde hori «era independentean» egingo duela azpimarratu du konpainiak, atzo zabaldutako idazki baten bidez. Horrela, Iberdrolak argi utzi nahi izan du ez duela energiaren alorreko beste ezein konpainiarekin bat egiteko asmorik, nahiz eta Repsol petrolio enpresak duela zenbait aste Bilboko konpainia elektrikoarekin talde handi bat osatzeko asmoa agertu.

«Iberdrolako zuzendaritza



XOUSE SIMAL

Iñigo de Oriol, Iberdrolako lehendakaria, artxibo irudi batean.

ziur da taldea era autonomo eta independentean garatu daitekeela. Helburu horrekin, haren eginkizun nagusiak bezeroen beharrianari erantzun, enpresa ekimena handitu, nazioarteko lidergoa lortu eta gaitasun teknologikoa garatzea izango dira», azaldu du enpresak.

Egitura aldaketa

Iberdrolako kontseiluak onartutako egitura aldaketak industri talde bat osatzea jasotzen du. Talde horrek

«korporazio, negozio eta zerbitzu konpartituen funtzioak» edukiko ditu bere gain.

Egitura aldaketa horren arrazoia Sektore Elektrikoaren Legeak inposatutako segregazio juridikoa dela argitu du enpresak.

Funtzio korporatiboen artean finantzaketa, planifikazio-garapena, giza baliabideen kontrola eta zuzendarien kudeaketa aipatu ditu Iberdrolak, baita harreman instituzionalak, kontu juridikoak, komunikazio-irudia eta barne auditoria ere. Korpora-

zioaren funtzioak «taldearen gobernu eta orientazioa» izango dira, eta alor bakoitzak arduradun bat izango du.

Negozioak, berriz, argindar sorkuntza, merkaturaketa, sareak, nazioartea, dibertsifikazioa, ingenieritza eta sistemak izango dira, horiek ere zuzendari bana dutela.

Iberdrolaren enpresa egitura berriak Iñigo de Oriol eta Javier Herrero mantenduko ditu lehendakari eta kontseilari-ordezkarik gisa, hurrenez hurren.

EEBBetako Erreserba Federalak ez ditu interes tasak igo

■ Aldaketarik ez egotea espero zen, inflazio seinalerik ez baitago

Erredakzioa / Donostia

EEBB-ETAKO ERRESERBA FEDERALAK ez ditu epe laburreko interes tasak igo, atzo erakunde horrek aditzera eman zuenez. Fed-en tasa %5,50ean zegoen lehenago eta horretan uztea ebatzi zuten Washingtonen.

Erreserba Federalak azaroaren 16an igo zituen azkeneko aldiz interesak. Atzo kaleratutako agirian, demandaren hazkundeak eragin ditzakeen arazoez kezkatuta agertu zen erakunde ekonomikoa.

Analista gehienek ez zuten uste igoera egongo zenik. Bi arrazoi zituzten horretan egoteko: batetik, EEBBetan ageriko inflazio mugimendurik ez izatea, eta, bestetik, 2000 efektuak merkatuari eragin diezaikeen arriskua.

Erreserba Federalak otsailaren 2an egingo du hurrengo bilera. Bilkura horretan demandaren eta eskaintzaren arteko erlazioaren gorabeherak aztertuko dituzte.

Erreserba Federalaren erabakiaren berri jakin eta gero euroak balioa galdu zuen apur bat, 1,0083 dolarretatik 1,0075ra pasatuz.

Enpresak sortzeko programa bat jarri dute abian BBK-k eta EHMik

J.A. / Bilbo

GAZTE Lanbidean izeneko BBK-ko fundazioak eta Euskal Herriko Marketin Institutuak (EHMI) hitzarmen bat sinatu zuten atzo, enpresak sortzeko helburu izango duen programa bat abian jartzeko.

Programa honen helburua «EHMIko ikasleen artean ekimen kultura eta enpresa proiektuak bultzatzea» dela adierazi dute hitzarmenaren sinatzaileek. Ohiko enplegatu lanaz gain, gazteen artean autoenplegua bultzatu nahi dute bi erakundeek ikasle gazteen artean. Akordioaren arabera, Gazte Lanbidean fundazioak diru laguntzak bideratuko ditu enpresa proiektuak bideratzeko.

Ardanza Euskalteko lehendakari izendatu dute

J. Aiertza / Bilbo

EUSKO Jaurlaritzako lehendakari ohi Jose Antonio Ardanza Euskaltel telekomunikazio enpresako lehendakari berria da, enpresako akziodunen biltzarrek atzo Zamudion hala onartuta.

Ardanzak Jose Luis Larrea ordezkatu du Euskalteko lehendakaritzan, azken honek karguan hiru urte luze eman eta gero, hain zuzen ere konpainia 1996. urtean sortu zenetik hona.

Ardanzarekin batera, Carlos Lanbarri enpresako zuzendaria, Idoia Zenarruza betitza Eusko Jaurlaritzako lehendakariordea, Patxi Ormazabal sailburua, Ando-

ni Ortuzar EITBko zuzendaria eta EAeko hiru aurrezki kutxetako presidentek daude Euskaltelen Administrazio Kontseiluan.

Konpainiatik gogoratu dutenez, Euskaltel sortu zenetik hona posizio garrantzitsua lortu du Euskal Autonomia Erkidegoko telekomunikazio merkatuan. Telefono zerbitzuez gain, Internet, telefono zerbitzu publikoa, datu transmisioa, telefonia mugikorra eta kable bidezko telebista zerbitzuak eskaintzen ditu. Helburu horrekin Retevisión eta Amena enpresekin akordio estrategikoak sinatu ditu Euskaltelek.



TXEMA FERNANDEZ

Jose Antonio Ardanza eta Jose Luis Larrea, Euskaltelen egoitzan.